

## Zer da PISA programa?



**P**rogramme for **I**nternational **S**tudent **A**ssessment  
(Ikasleen nazioarteko ebaluaziorako programa)

ELGAREN (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) proiektua da.



Hezkuntzari dagokionez, munduko nazioarteko ebaluaziorik handiena da.

PISAREN azken helburua herrialde parte-hartzaile guztiei ebaluazioaren emaitzak erabiltzen laguntzea da, betiere, irakaskuntza eta ikasleen lorpenak hobetzeko.

Nahiz eta hiru urtean behin izan, PISA2021 edizioa 2022ra atzeratu da COVID19 dela eta.

2021ean, PISA 2022 proba pilotatuko da euskaraz.

## Nork hartzen du parte PISA 2022ren pilotajeetan?



COVID19k sortutako pandemia egoera dela eta, proba pilotuan parte hartuko dute DBHko 4. mailako geletan eskolatuta dauden eta laginean parte hartzeko aukeratuko diren ikasleek.

Horrela, ikastetxeetan lantzen ari diren bizikidetzako talde egonkorak edo burbuilak errespetatu nahi dira.

### Zuzendaritza-taldeak

Zuzendaritza-taldeek galdera-sorta bat osatuko dute, irakaskuntza-ikaskuntza testuinguruari eta ikasleen errendimenduan eragina duten zenbait faktoreri buruzko informazioa izateko.



### Lagina

EAEn, proba pilotuan, 25 ikastetxetako 1.400 ikaslek hartuko dute parte.

## Zergatik da garrantzitsua PISAn parte hartzea?

**Garrantzitsua!**

Ikaslearen kompetentzia maila eta bilakaera ezagutzeko aukera ematen duelako, gainerako herrialdeekin alderatu eta ikaslearen errendimendu maila denboran zehar kokatzea ahalbidetzen duelako, bai nazio mailan, bai nazioarte mailan.


Hezkuntza-sistemak alderatzeko aukera eskaintzen du. Alderaketaren bidez, nazioarte mailan koka daiteke, praktiki onenak identifikatu eta beste herrialde parte-hartzaileetako hezkuntza-sistemen funtzionamendutik ikas daiteke.

Hezkuntza-sistema arrakastatsuen profilak identifikatu daitezke; horrela, besteak hobetzeko eredu gisa erabili daitezke.

Gobernuei hezkuntza-politikak berriz pentsatu eta berriak diseinatzea ahalbidetzen die.



## Zer herrialdek hartuko dute parte PISA 2022an?



## Zer ebaluatzen da?

### KONPETENTZIAK

Bizitzako egoera errealetan ezagutza aplikatzeko gaitasuna.

PISAk hiru kompetentzia nagusi ebaluatzen ditu:

Matematikarako kompetentzia  
Irakurketarako kompetentzia  
Zientziarako kompetentzia



PISAko edizio bakoitzean, hiru kompetentzietako bat beste biak baino sakonago ebaluatzen da. Aurten, Matematikarako kompetentzia izango da.



**Gainera**, ziklo honetan Finantzarako kompetentzia eta pentsamendu sortzailea ebaluatuko dira.

## Zer pilotatuko da?

PISA 2022ko proba pilotuaren aplikazioan, ikasleek proba kognitiboa egingo dute eta zenbait galdera-sortari erantzun beharko diote. Era berean, ikastetxeko zuzendaritzak galdera-sorta bati erantzun beharko diote.

### Ikasleak

#### Matematikarako kompetentzia\*

Irakurketarako kompetentzia  
Zientziarako kompetentzia  
Finantzarako kompetentzia  
Pentsamendu sortzailea

Ikasleentzako galdera-sorta  
Finantza-gaietako galdera-sorta  
IKTen ezagutzari buruzko galdera-sorta  
Ongizateari buruzko galdera-sorta  
Covidi buruzko galderak

\* PISA 2022an, Matematikarako kompetentzia sakonago ebaluatuko da.

### Zuzendaritza-taldea

| Ikastetxearen galdera-sorta

## Nola pilotatuko da PISA 2022an?



PISA 2022ren pilotajearen proba kognitiboak eta galdera-sortak ordenagailu bidez egingo dira.

Aplikazioaz arduratzen den enpresak eramango du ikastetxeetara beharrezko material informatikoa.

Probak egiteko ez da beharrezkoa Interneteko konexioa.

## Zenbat iraungo du probak?

Proba kognitiboak 2 ordu iraungo du, bi saiotan banatuta. Bien artean 5 minutuko atseden laburra izango da.

Ondoren, ikasleek ordu eta erdi inguru izango dute galdera-sortei erantzuteko.



## Noiz pilotatuko da PISA 2022a



PISA 2022ko proba pilotua 2021eko apirilaren 5etik maiatzaren 16ra bitartean aplikatuko da.

## Zertarako egiten da pilotajea?

EAEk PISA proba pilotatu behar du euskaraz, itemek eta probak ongi funtzionatzen duten jakiteko.

Pilotajearen emaitzak ezagutu ondoren, 2022an egingo den azterketa nagusirako behin betiko proba sortuko da.